



77. HONDARTZAKO “PACO URQUIA” FUTBOL TXAPELKETA. ARAUTEGIA.

ARAUTEGIA.- FIFako arautegia salbuespen batekin ezarriko da: jokoz kanpo eremua area aurreko marra ondoren hasiko da.

AKTAK.- Talde bakoitzeko ORDEZKARIAK partiduak hasi baino 30 minutu lehenago azaldu beharko du hirukoiztutako aktan dauden dortsal zenbaki, izen eta bi abizenak berrestera. Aktak antolakuntzak beteko ditu taldeko fitxetan dauden jokalarien zerrenda eta dortsal zenbakiarekin. Zerrenda hauek astearen hasieran inprimatuko dira eta bertan dauden jokalariek bakarrik hartu ahal izango dute parte partidetan. Hau ez betetzeak ondorengo zigorrak dakartza: partidua 1-0 galdutzat ematea, 3 puntu kentzea.

JOKOZAINAK.- Jardunaldi bakoitzean, Lehiaketa batzordeak izendatutako taldeak jokozaina aurkeztu beharko du. Honek partidua hasi baino 30 minutu lehenago hondartzako lokalean azaldu beharko du.

Taldeko jokozaina agertzen ez bada eta Lehiaketa batzordeak ordezkorik aurkituko ez balu, jokalariek egin beharko dituzte jokozain lanak.

Partidua hasten duen jokozainak amaitu beharko du. Ezingo da jokozaina aldatu partidak irauten duen bitartean. Halakorik gertatu ezker, taldeari 3 puntu kenduko zaizkio.

FITXAK.- Jolasteko gutxieneko adina 16 urtekoa izango da. Mutilen talde bakoitzak 22 fitxa egin ditzake, nesken kasuan, 18. Antolakuntzak kasu bereziak aztertu eta salbuespenak onar ditzake. Talde bakoitzak, Abenduaren 30, eguerdiko 13:00ak arte izango du kopurua betetzeko epea. Fitxak era digitalean kudeatuko dira. Hurrengo jardunaldia baino 7 egun lehenago (inoiz ez hondartzako lokalean edo Klubeko egoitzan). Txapelketan hasi ahal izateko, gutxienez 11 fitxa eta NANaren fotokopiak aurkeztu beharko dira.

Abenduaren 30, eguerdiko 13:00etatik aurrera, ezingo da beste jokalaririk onartu, ezintasunagatik.., izan ezik. Dena den Lehiaketa batzordeak erabakiko du.

Jokozainek eskatzen badituzte ere, ordezkariak jardunaldi guztietan beren taldeko fitxak gainean izan behar dituzte.

Lehiaketa batzordeak onartu ezik, Futbol Federakuntza batean izen emanda dagoen jokalariek ezin izango du txapelketa honetan parte hartu.

PARTIDU AURREKO AURKEZPENA.- Talde guztiek jardunaldia hasi baino 15 minutu lehenago egon beharko dute egokitutako zelaian. Partidu bat jokatu ahal izateko, mutilen kasuan, gutxienez 7 jokalarik bertaratu beharko dute. Nesken kasuan, aldiz, 6 jokalarik. Gutxieneko kopurua lortzen ez bada, behar diren jokalariai lortu ez dituen taldeari partidua 3-0 galdutzat emango zaio, 3 puntu gutxiago sailkapenean.

KAMISETA ETA DORTSALAK.- Jokalari guztiek kamiseta berdinarekin aurkeztu beharko dute eta hauek zenbakidunak izan beharko dute. Partidu batean bi taldek kamiseta kolore bera izango balute, bigarren tokian izendatua dagoen taldeak aldatu beharko luke kamiseta.



ALDAKETAK.- Neska eta mutilek aldaketak libreki egiteko aukera izango dute. Ondorengo baldintzak bete beharko dira:

1. Partiduko edozein momentutan egin daitezke aldaketak.
2. Ez da mugarik egongo eta aldatua den jokalariai berriz sartzeko aukera izango du.
3. Baloia zelaitik kanpora edo geldirik dagoela egingo da aldaketa, epailea jakinaren gainean jarritz.
4. Zelaira sartuko den jokalaria, zelaia erditik sartuko da, malekoia aldetik, ordezkatzeko duen jokalaria zelaitik irten ondoren.



ZELAIK MARKATZEA.- Talde guztiek jardunaldi bat izango dute zelaiak markatzeko, nahiz eskolarteko nahiz senior mailakoa izan. Denboraldi hasieran egindako zozketaren arabera izango da markaketen ordena, baina Lehiaketa batzordeak alda dezake. Hondartzako lokalean eta batzordeak finkatutako orduan, gutxienez 10 jokalarik azaldu beharko dute. Hala ez bada, txapelketatik kanpo geratzeko dira.

ZELAIAREN NEURRIAK.- Zelaiek, ondorengo neurriak izango dituzte:

1. **MUTILAK:** Luzeran: 92 pasu. Zabaleran: Sokak markatzen du (40m inguru).
Area luzeran: Porteriaen marrazatik 18 pasu. Zabaleran: osoa.
Area zabaleran: Banda bakoitzetik portierantz 9 pasu.
Penalti puntua: Porteriaen marrazatik 11 pasu.
Zelaitik zelaira: 5 pasu
2. **NESKAK:** Luzeran: 75 pasu. Zabaleran: Sokak markatzen du (40m inguru).
Area luzeran: Porteriaen marrazatik 13 pasu. Zabaleran: osoa.
Area zabaleran: Banda bakoitzetik portierantz 9 pasu.
Penalti puntua: Porteriaen marrazatik 9 pasu.
Zelaitik zelaira: 5 pasu



3. HAURRAK: Benjaminak: Luzeran 50 pausu. Zabaleran: Sokak markatzen du.
 Alebinak: Luzeran 60 pausu. Zabaleran: Sokak markatzen du.
 Zelaitik zelaira: 4 pausu



OINETAKOAK.- Mutilen kasuan, jokalariek, oinutsik edo goma biguneko oinetakoekin (eskarpin eta tobillerak) jokatu ahal izango dute. Nesken kasuan aldiz, jokalariai takorik gabeko oinetakoekin jokatu dute. Jokozainak erabaki dezake oinetakoa egokia den ala ez. Egokia ez dela erabakiko balu jokalariai onartu egin beharko luke.

MATERIALA JASOTZEA.- Partidua amaitu eta berehala talde bakoitzak ateak, sarea eta bi banderatxoak hondartzako lokalean entregatu beharko ditu. Zelai markatzailea, berriz, lehen izendatua dagoen taldeak eraman beharko du.

Talde bakoitzak izan beharko du arduradun hartzen duen materialaz. Hau galtzen bada, talde horrek ordaindu beharko du material berria.

TXAPELKETATATIK KANPORATZEA.- Talderen bat txapelketatik kanporatua izango balitz, talde horren aurka jokaturako partiden emaitzak eta puntuak ez lirateke kontuan hartuko.

PARTIDUAK ATZERATZEA.- Partidu bat atzeratu ahal izateko, bi taldeek ados egon beharko dute eta helbide elektronikoaren bitartez Lehiaketa batzordeari jakinarazi, jardunaldia baino 15 egun lehenago. Erabakia Lehiaketa batzordeak hartuko du eta aldaezina izango da. Aldaketa onartuko balitz, Lehiaketa batzordeak eta partidua jokatu behar duten taldeen artean erabakiko dira eguna eta ordua.

BALOIA.- Talde bakoitzak arauzko baloia aurkeztu beharko du. Baloiarekin ados jarriko ez balira, jokoazainak aukeratu luke zein baloirekin jokatu.

ZIGORREN JAKINARAZPENA.- Jardunaldi bakoitzean zigorren berri inprimaki baten bitartez jakinaraziko da. Hala ere, zigorren bat duen taldeari, aste horretan bertan jakinaraziko zaio.

KEXA ETA KONTRA-EGITEAK.- Partidua amaitu eta gehienez 72 orduren barruan idatziz aurkeztu beharko dira kexa eta kontra-egiteak Lehiaketa batzordearen helbide elektronikora.

TXARTEL BELTZA

Jokoazaina babesteko helburuz txartel beltza gehitu da. Txartel hau jokoazaina iraindu edo mespretxatzean erakutsiko da eta ondorengo eraginak izango ditu:

- Txartel beltza ikusten duen jokalaria zelaia utzi beharko du eta bere partez taldekide bat sartuko da. Partida guztian zehar, zelaia utzi duen jokalaria, ezingo du gehiago jolastu.
- Jokalariari zigorrak:
 - Txartel beltza ikusi duen jokalaria, hurrengo jardunaldi batean, jokoazain lanak egin beharko ditu.
 - Ez zaio dirurik emango ordainetan.
 - Zigorra bete arte ezingo du gehiago jokatu.
 - Jokalari batek bi txartel beltz ikusten baditu txapelketatik kanporatua izango da.
- Taldeari zigorrak:
 - Talde bateko partaideek 3 txartel beltz ikusten badituzte: 5 puntu gutxiago.
 - Talde bateko partaideek 4 txartel beltz ikusten badituzte: Taldea txapelketatik kanporatuko da.

BESTELAKO ZIGORRAK

- Jokoazaina eraso edo erasotzen saiatzea: egungo txapelketatik kanporatzea.
- Aurkaria erasotzea: 3 eta 6 partidua bitarte jokatu gabe.
- Partidua batean 2 txartel hori: partidua bat jokatu gabe.
- 4 txartel hori kanporaketan aurretik: partidua bat jokatu gabe. Kanporaketetan txartel kontaketa 0 tik hasiko da.

- Partidu batean txartel gorria: gutxienez partidu bat jokatu gabe eta jokozainak aktan jartzen duenaren arabera, Lehiaketa batzordeak zigorra aldatu dezake.

Partiden iraupena neska eta mutiletan 80 minutukoa izango da (40 minutuko bi zati). Kanporaketetako penaltietan taldeko 5 pertsonak botako dute.

ARAUTEGIAN AIPATUTAKO ZIGORREZ GAIN, LEHIAKETA BATZORDEAK HALA IRITZIZ GERO, ZIGOR GEHIAGO EZARTZEKO ERABAKIA HARTU DEZAKE.